



16. zk.

2 0 0 9 k o m a r t x o a

TOKIKO AGENDA 21aren gaineko informazio aldizkaria



Arratia GAP programako parte-hartzaile berria

GAP Programa 2009



Global Action Plan du izena eta bere helburua da ur eta energiaren kontsumoa aurrezteko, garraioa era zentzudunean erabiltzea eta gure etxeko erosketak eta hondakinak hobeto kudeatzen laguntzea. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak eta Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sareak, Udalsarea 21ak, alegia, programa honen laugarren edizioa martxan jarri dute Nazio Batuen babesarekin. Arratia da aurten programa honetara gehitu diren 88 herrietako bat.

Arratia Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sareko, hau da, Udalsarea 21eko, kide da eta gainontzeko herriak bezala, hiritarrak sentsibilizatzea eta horien parte-hartzea bultzatzea du helburu Tokiko Agenda 21aren barne. GAP programa berri honek, hain zuzen ere, herritarren inplikazioa eskatzen du; izena ematen duten etxebizitzek programa jarraitu beharko dute eta, horri esker, hainbat onura lortu ahalko dituzte, bai familiarentzat eta baita herriarentzat ere. Guztira, GAP Programaren 4. edizio honetan 170.000 familiei luzatu zaie parte hartzeke gonbidapena.

Aurreko hiru edizioetan 91 udalerrietik 22.000 familia baino gehiagoko murgildu ziren GAP programan, eta etxean sortutako 350 tona hondakin murriztea, 65 milioi litro ur gutxiago kontsumitzea eta 5.000 tona CO₂ isurtzea saihestea lortu zen.

www.arratia21.org

Begirada bat botatuz!

Izena emateko sartu www.udalsarea21.net orrian



ANIMA ZAITEZ ETA PARTE HARTU

Nork parte har dezake?

Nahi duen guztiak. Parte hartu nahi duten familiek GAP programa internet bidez egiteko aukera dute eta www.udalsa-rea21.net web orrian izena eman dezakete. Programa paper bidez egin nahi izanez gero, etxeetara iritsi den liburuxkari erantsita dagoen kupoia bidali beharko dute.

Zertan datza GAP plana?

Hiru hilabete bitartean ur erabilerari, energiari, etxeko hondakinen kudeaketari eta erosketak egiteko ohiturari buruzko lau gidaliburu jasoko dituzte herritarrek. Bertan, ingurumena zaintzeko aholku praktikoak agertuko dira.

Gai bakoitzean, autoebaluziorako galdera-sorta erraz batzuk bete beharko dituzu, eskuliburuak irakurri aurretik eta irakurri ondoren, etxe bakoitzean ingurumenarekiko jokabideak nola bilakaera izan duen jakiteko. Horren laguntzaz, programan parte hartzen duen familia bakoitzari dagokionez proiektuak gure ingurumenari zenbaterainoko onura egin dion kalkulatu ahalko dugu.

"Ahalegin handiak ez dira eskatzen, keinu txikiak baizik". GAP programak lau galdeketa ditu, aurrerapenak ebaluatzeko eta etxe bakoitzaren emaitzak jakiteko.

- Programa bukatzen duten familia guztiek **Etxe Ekologikoaren ziurtagiria lortu eta opari ezberdinen zozketan parte hartuko dute; bizikletak, asteburuak landa etxeetan, Karpin Abenturarako edota Madariaga Dorretxea Euskadiko Biodibertsitatearen Zentrarako sarrerak, esaterako.**

GAP programa amaitu eta gero, udalerrri bakoitzak parte hartze maila eta honi esker lortutako ingurugiro hobekuntza emaitzak eta familia bakoitzaren konpromiso pertsonala jakin ahal izango du.

Ekimen hau Eusko Jauriaritzako Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020 planaren barruan sartzen da. Estrategia horrek Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren ingurugiroarekiko konpromisozko lortzea du helburu.

Emaitzak

Orain arte, GAP programak Euskal Autonomia Erkidegoan izan dituen **aurreko hiru edizioetan**, 91 udalerritako 20.885 familiak baino gehiagok parte hartu dute, eta hau lortu dute guztien artean: etxean 350 tona hondakin gutxiago sortzea, 65 milioi litro ur gutxiago kontsumitzea eta 5.000 tona CO₂ gutxiago aireeratzea.

Beste herrialde batzuekin alderaturik, GAP programak Euskal Autonomia Erkidegoan izandako hiru edizioen batez besteko emaitzak oso onak izan dira.

	EAE	Erresuma Batua	AEB	Holanda
Edukiontzien erabileraren hazkundea	%10	%14	%9	%8
Ur-aurrezpena	%6	%18	%5	%10
Etxeko energiaren aurrezpena	%10	%12	%10	%15
CO ₂ emisioen murrizketa	%15	%10	%12	%15

Zehazki, ur-kontsumoa 65 milioi litro gutxitu zen (50 metroko luzera duen 19 igerileku olinpiarretan sartzen den ur kopurua).

- Euskal ekonomia iraunkor baterantz jotzeko berrikuntzak martxan jartzea. Berrikuntza hauek produkzio eta kontsumo garbian oinarrituta egon behar dute, hau da, karbonoan neutroa.
- Urtero berotegi-efektua duten gasen inbentarioa egitea, bai udalerrian, bai Udaletxean ere.
- Udalerrian hezkuntza, sentsibilizazio, partaidetza edo beste esparrutan aldaketa klimatikoari buruzko ekintzak garatzen dituzten tokiko elkartei dirulaguntzak ematea.

Stop CO₂ Euskadi Aldaketa Klimatikoaren aurkako Euskal Bulegoak sustatutako programa bat da. www.stopco2euskadi.net-en bitartez egiten dute lan. Bere helburua Euskal Autonomia Erkidegoan, modu berritzailean eta ekintza zehatzen bitartez, berotegi-efektuko gasak gutxitzea da.



Areatzako Udala ere aldaketa klimatikoaren aurka

Areatzako Udalak CO₂ Euskadi proiektuan hartzen du parte **Kide berezi** gisa. Atxikimendu honek honako konpromisoak hartzea bultzatzen du Udala:

- Aldaketa klimatikoari aurre egitea eta bere ondorioetarako prestatzea.

ARRATIAKO MUGIKORTASUNA AZTERTZEN



- Joan-etorri gehienak norberak bere autoarekin egiten ditu eta garraio publikoaren erabilera oraindik eskasa da.**

Aldizkari honen aurreko zenbakietan ezagutzera eman den bezala, Arratiako Udalen Mankomunitatea eskualdeko Mugikortasun plan bat garatzen ari da. Honen helburu nagusia, mugikortasun modu iraunkorrak sustatzea da.

Zenbait hilabetetako lanaren ondoren, diagnosa amaitu da eta honako ondorioak azpimarra daitezke:

1. OINEZKOEN MUGIKORTASUNA

Zenbait herrigunetan oinezkoen mugikortasun ohikoa da, eta ohitura hau mantentzea, ezinbestekoa da.

2. NORBERAREN IBILGAILUA

Joan-etorriak, bai eskualde barruan bai kanpora begira ere, norberak bere autoarekin egiten ditu.

2.1. Norberaren autoaren erabilpena Bizkaiko batez bestekoa baino altuagoa da.

2.2. Ibilgailu bakoitzeko betetze-adierazlea baxua da (1,09) antzeko ezaugarriak dituzten guneekin alderatuta.

2.3. Motorizazio-indizearen igoera handia gertatu da.

3. LAN ESKAINTZA: Gaur egungo lan eskaintza biztanleria landuna baino altuagoa da. Halere, zerbitzu-sektoreko lanpostuen beharrei ez zaie behar bezala erantzuten. Aldi berean, industria arloko gehiegizko eskaintza ematen da.

4. GARRAIO PUBLIKOA: Mugikortasun orokorrean garraio publikoak bigarren mailako papera du.

4.1. TRENA: Trenak erabiltzaile kopuru esangarria du, bai kotxeak baino denbora lehiakorragoak izateagatik, bai Bilborekin duen konexioagatik.

4.2. AUTOBUSA: Zenbait autobus-geltokitan oinarrituko irisgarritasun gabeziak sumatu daitezke; informazio falta, segurtasun falta, altzari falta, etab. Horrek autobusaren erabilera ez du oso erakargarri egiten.

Diagnosiaren emaitzak jaso eta aztertu ondoren, maiatzeko proiektua amaituta egotea aurreikusten da. Horren ondoren, Ekintza Plan zehatz bat jarriko da martxan Arratiako mugikortasuna hobetu ahal izateko. Halere, orain arte garatu dira Arratiako mugikortasuna hobetzea helburu duten hainbat proiektu, besteak beste, Autoa Elkarrekin proiektua. Lanera, ikastera edo bestelakoetara joateko kotxea partekatzeke interesa duten herritarrek, www.arratia21.org ko webguneko Autoa Elkarrekin atalean izena ematea besterik ez dute.

Mugikortasun plan berriak eta eraginkortasun energetikoa Igorren eta Areatzan

Igorre eta Areatza herriek Mugikortasun Plan berriak garatzeari ekin diote. Hauek herritarren parte hartzea bultzatu nahi dute eta hemendik ondorioztatutako proposamenekin iraunkortasuna bultzatuko duten mugikortasunerako modu berriak diseinatuko dituzte. Horrez gain, bai Igoerre eta baita Areatzak ere herriko argien eraginkortasun energetikoaren inguruko ikerketak burutu dituzte eta azken honek, gainera, herriko eraikinen auditoria energetikoa egin du.

Pilak birziklatzea, oraindik errazagoa Arratian



Arratiako Mankomunitatea osatzen duten herrietan oraindik errazagoa da pilak birziklatzea. Izan ere, kaleetan 11 edukiontzi berri ezarri dira pilak errazago jaso ahal izateko; baina ez hori bakarrik, bizilagunei etxean erabiltzeko edukiontzi txiki bat banatu baitzaie doan erabilitako pilak bertan gorde ditzaten. Arratiako herrietan bizi den edozein pertsonak eskatu ahal izango du edukiontzi txiki hau, oraindik eskuratu ez badu.

Bestalde, kaleetan ezarri diren 11 edukiontzi berriak duela gutxi Mankomunitateak ezarri zituen beste hainbat ontziri gehitzen zaizkie; hain zuzen ere, arropa eta erabilitako olioak birziklatzeko ontzietan. Pilak birziklatzeko ontzietan dagokionez, bina ezarri dira Igorre eta Lemoa herrietan eta bana, aldiz, beste herri guztietan: Ubidea, Zeanuri, Areatza, Artea, Aranzazu, Dima eta Bedia.



Dimako urak bere kalitatea hobetu du

Dimako uraren kalitatea ziurtatzeko Osakidetzak 28 ikerketa egin berri ditu eta horien guztien ondorioa izan da herriko uraren kalitatea guztiz egokia



dela kontsumitzaileentzat. Datu horiek, zalantzarik gabe, berri ona ekarri dute herrira, 2007ko balorazioa ez baitzen guztiz onuragarria izan: egin ziren analitiken %33,3ak kontsumitzeko egokia ez zela adierazi zuten.

Laster... Agenda 21eko Parte-hartze Gunea Bedian

Datorren maiatzaren 6an, arratsaldeko 19.00etan, Parte-hartze Gunea ospatuko da Bediako udal liburutegian. Bertan Bediako Ekintza-planaren egoera ikertuko da eta hainbat gairi buruz eztabaidatzeko aukera emango da: garatzeko dauden ekintza berriak, parte-hartze modu finakoak eta bestelako gaiak.



Ubidek iraunkortasuneranzko prozesuari ekin dio

Ubide buru-belarri sartu da herriko Ekintza-planaren garapen prozesuan. Horretarako, Tokiko Agenda 21ek finkaturiko metodologian oinarrituko da, hau da, ingurumen, ekonomia nahiz gizarte egoeraren diagnostia garatzen, herritarren parte-hartzea bultzatzen, plana garatzeko lehentasunak eta helburuak definitzen eta horiek lortzeko ekintza konkretuak diseinatzen.

Martxoaren 22an URAren nazioarteko eguna Ura: gaizki banatutako baliabidea

Joan den martxoaren 22an Uraren Nazioarteko Eguna izan zen. Urtero bezala, ezinbesteko baliabide hau egoki erabili dezagun mezu ugari jaurti ziren. Baina, batik bat, mugaz gaindiko ur-baliabideen inguruan hitz egin zen, aurtengo gaia.

Munduan bizi garen gizaki guztion beharrianak asetzeko ur nahikoa dago. Horren froga da mundu guztian dauden arro eta lakuak lurreko azalera lehorraren erdia estaltzen dutela ia-ia. Orduan, zer gertatzen ari da oraindik milioika gizaki urrik gabe bizitzeko?

Ur-baliabideak ez daudela uniformeki banatuta. Horixe. Munduan mugaz gaindiko 263 ibai-arro eta laku daude, baina 145 herrialdeetan banaturik. Honek zera esan nahi du: munduko biztanleriaren gehiengoak ibai-arroak konpartitzen dituela. Horrek gatazka eta lehia ugari sortzea eragiten du, herrialde guztiek beren ur beharrianak asetzen ahalegintzen baitira, tamalez, albokoaren beharretan erreparratu gabe.

Hala ere, historiak erakutsi digu lankidetzak dela arazoei irtenbidea emateko aukera onena. Guztion erantzukizuna da mugaz gaindiko

ur-baliabideen kudeaketa; guztiok, gure eguneroko bizitzatik hasita, lagundu dezakegu uraren banaketa eta erabilera bidezkoagoa bilakatzen.

Zer egin dezakezu zuk horretarako?

- Erabiltzen ez dituzunean, txorrotak ondo itxita daudela ziurtatu beti.
- Dutxa erabili gorputza garbitzeko (30-40 litro), eta ez bainua (100-130 litro).
- Jarri ura aurrezteko tresnak txorrotetan, dutxetan eta komunontzietan.
- Ez bota komun-ontzira zigarrokinik, kotoirik, konpresarik, oliorik edo produktu kutsatzailerik. Komuneko zuloa tratatzeaz gain, uren arazketa oztoka dezakete.
- Ez erabili garbigailuak erdi beteta: abian jarri baino lehen, arropaz edo ontziz bete-beteta egon arte itxaron.
- Erosi aurretik, arretaz irakurri garbiketa-produktuen etiketak, eta produktu toxikorik edo ingurumenarentzako osagai arriskutsurik ez daukatenak aukeratu.

Martxoaren 14an ZUHAITZAREN eguna Zuhaitza: ezezaguna nahiz eta gugandik hain gertu bizi

Urtero bezala, Zuhaitzaren Eguna ospatu genuen Arratian joan den martxoaren 14an. Egun honetarako ekintza ugari antolatu ziren eta guztiek ondorengoa zuten helburu: herri bakoitzeko basodia handitu eta herritarrak basoek munduan duten garrantziaz sentsibilizatu.

Arratia inguruko bizilagun ugari elkartu ziren otsaila eta martxoa bitartean herri ezberdinetatik bultzaturiko ekimenetan. Gazteek parte hartu zuten ikastoletan martxan jarritako ekintzen bitartez (Artea eta Dima herrietan, esaterako) baina udalerriri mailan ere parte hartu da, Igorren antolaturiko zuhaitzen banaketa eta landatzean, besteak beste. Ubiden, Areatzan, Lemoan eta Zeanurin ere ospatu dute Zuhaitz Eguna. Ekimen gehienak zuhaitz berriak landatzean oinarritu ziren, hain zuzen ere baso-berritze prozesuei bultzada emateko asmoz.

Zergatik da hain garrantzitsua baso-berritzea?

Lurren baso-berritzeak onura handiak dakartza arlo ezberdinetan:

- **Tokiko biodibertsitatea emendatu**, fauna eta florarentzako habitata berrien sorrera eragiten baitu.
- **Arzteko ahalmena**: basoak atmosferako eta uretako kutsatzaileak filtratzen ditu. Gainera kutsadura akustikoa murrizten du.
- **Uholde arriskua gutxitu**, uraren abiadura murriztu eta lurra finkatzen denez, luraren higadura gutxiagotzen delako.
- **Paisaiaren kalitatea hobetzen da**, bai biztanleriaren gozamenerako bai turismorako.
- **Berotegi efektua geldiarazi**, basoek CO₂ xurgatzen baitute.

